



Euskaraz ari diren irakurle taldeez gain, aurki sahararren kanpamenduetan abian jarriko duten irakurle talde feministaz hitz egin zuten.

# Momentu fantastikoa



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: SAREINAK

## IRAKURLE KLUB FEMINISTEZ MAHAI-INGURUA

Maiatzaren 5ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

Malen Vilches, Josune Muñoz eta Gema Lasarte mahai-inguruan. Haiekin, literatura eta feminismoa batzen dituen eta ekitaldiaren antolatzaile izan zen Sareinak taldeko kideak eta Gema Lasarteren Gasteizko irakurle klubeko partaideak.

Irakurle klub feministak gaur bezala egituratuta ez zeuden garaiaz hasi dira hizketan. Josune Muñozek –zerbitzu literarioak eskaintzen dituen Skolastikaren sortzailea– duela 30 urteko gosea aipatu du, Euskal Filologian idazle emakumezkoak ikasten ez ziren garaia. Vilchesek irakurle klub deitzen ez ziren baina egiteko bera zuten irakurketa molde kolektiboak gogoratu ditu. *Miedo a volar*, *El cuaderno dorado*, *Mujer habitada*, *Dalloway Andrea*, eta beste. Gaztelaniaz, ezin bestela. Gaur bezala orduan ere mugimendu feministak ikasi beharra zuen, liburu bidezko eztabaidak formakuntza modu bat ziren. Oraingo ordea, “momentu fantastikoa da, *King Kong Teoria*, *Caliban eta sorgina...* euskaraz ditugu!”, dio Muñozek.

Gema Lasartek Gasteizko irakurle kluba gidatzen du duela lau urtez geroztik. Kluba elkarrekin ikasteko proposamenez du, “dialektikak jakintza sortzen du”. Lasartek partaide kopuruari garrantzi berezia ematen dio, alegia, talde handiegien klubak duen egitekoa ahultzeko arriskua dute. Izan ere, irakurle taldeak plazak dira, denek hitz egiteko, eztabaidatzeko, emakumeak ahalduztzeko prozesu. Mihiari hozka egiten dio partaide guztiek hitz egin arte isilik egiteko. Euskal emakume idazleak lehenesten ditu, gazteak eta klasikoak tartekatatu. Hiru helburu orokorretan definitu ditu irakurle taldeok: eztabaida sortu eta partaideak literaturara eta feminismoa gerturatu. Bi gauza botatzen ditu faltan Lasartek. Batetik, gazte gutxi dabilela irakurle taldeetan. Mugimendu feministan gazteak asko dira eta irakurle taldeetan urri. Bestetik, egindakoa ez gordetzearen kezka du: “Liburu bat komentatzen dugun bakoitzean eskola egiten dugu, hain gogoeta sakonak

unibertsitatean ere ez dira egiten. Momentuko jakintza nola gorde edo nola plazaratu pentsatu beharra dugu”. Lasarteren hausnarketak eztabaida piztu du. Unibertsitatearen ezaugarrietako bat hierarkia izanik, irakurle klubetako lanaz interesik ez duela dio batek. Irakurle taldeak balioan jartzea lortuz gero, agian orduan piztuko zaio interesa. Beste batek anekdota kontatu du: institutueta liburu berak programatzen dituzte urtero, sarri gazteentzat desegokiak, astunak. Halako batean irakasle batek bestelako liburu bat programatu du eta arrakasta izan du. Liburu hori proposatu du irakasle batek beste eskola batean, eta irakasle kideen errezeloak: “Zein da liburua? Nork gomen datu du liburu hori?”. Mugimendu feministatik datorrenari beldurra agian?

Hirugarren batek zalantzan jarri du herri mugimendutik eragin diren irakurle taldeek lotura behar dutenik akademiarekin, “herrikoia herrikoia izaten segi behar du, mugimenduarena da”. ■